

## PRENTSA-OHARRA

Badira leku libreak Civioxetako hiri-kanpaldietan abuztuaren 14tik 18ra, euskaraz, Iturramakoan, eta abuztuaren 28tik irailaren 1era, ingelesez, Zabalgunekoan

Civiox sareak udarako antolatu dituen 11 hiri-kanpaldietatik 9 beteta daude

Badira leku libreak Civiox sareak udarako antolatu dituen 11 hiri-kanpaldietatik bitan, eta horien artean badira gaztelaniazko, euskarazko zein frantsesezko saioak. Iturrama, Kondestable, Mendillorri eta Zabalguneko Civioxetan egiten dira kanpaldiak, goizez. Euskara zein gaztelaniazkoak robotei, zientziari eta teknologiar buruzkoak dira, eta frantses zein ingelesezkoen oinarria da partaideek hizkuntza horiek praktikatzea, zinemari erreferentzia eginez.

Zehazki, izena eman daiteke euskarazko *Zientzia eta teknologia. Asmakizunen lantegia* izeneko kanpaldian, abuztuaren 14tik 18ra. 6 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago, Iturramako Civioxean izango da, 09:30etik 14:00etara, eta 08:30etik aurrera sar daiteke. Prezioa 14 euro da egun bakoitzeko, eta 51 euro aste osoa. Badira leku libreak ere frantsesezko hiri-kanpaldian, *Camp de film: sois une étoile!* izenekoan, 4 eta 9 urte bitarteko haurrentzat. Kasu horretan Zabalguneko Civioxean izango da, abuztuaren 28tik irailaren 1era. Izen-emateak 14 euro balio du eguneko, eta 63 euro aste osoak.

Interesdunek izena eman dezakete 010 Herritarrendako Arreta Telefonoan (948 42 01 00, Iruñeaz kanpotik, mugikorretik edo telefono-operadore baten tarifa lauaren barruan deitzen bada) pamplonaescultura.es eta pamplona.es webguneetan, edo aurrez aurre hiriko zazpi Civioxetako edozeinetan (Kondestable, Juslarrocha, Mendillorri, Iturrama, Sanduzelai, Milagrosa eta Zabalgunekoa). On-line izena emanaz gero, ordainketa banku-txartela baliatuta egingo da, ordainbide seguru baten bitartez. Telefono bidez zein aurrez aurre ematen bada izena, ordainketa banku-txartelarekin edo kontu batean dirua sartuz egingo da. Hobaria aplikatuko zaie ondoko egoeraren batean daudenei, betiere behar den ziurtagiria aurkeztuta: familia ugaria, familia gurasobakarra, minusbaliotasuna, familia-unitatearen diru-sarrerak, ekintza terroristen biktimak, etxeko indarkeria delituen biktima eta familia-harrera.



## BETETA ZEIN BETE GABE DAUDEN HIRI-KANPALDIAK

---

- **Izen-emateak:** 14 euro eguneko; 51 euro, abuztuaren 14tik 18ra; eta 63 euro, aste osoa
- **Ordutegia:** 09:30 – 14:00 (08:30etik aurrera sar daiteke).
- **Esploratu roboten mundua** (euskaraz). 6 - 11 urte bitarte. 09:30etik 14:00etara
- Iturrama. Uztailak 31 – Abuztuak 4. Beteta
- Kondestablea. Abuztuak 7 – 11. Beteta
- **Zientzia eta teknologia. Asmakizunen lantegia** (euskaraz). 6 - 11 urte bitarte.
- Iturrama. Abuztuak 14 – 18. Bada leku librerik.
- Kondestablea. Abuztuak 21 – 25. Beteta.
- **Esploratu roboten mundua.** 6 - 11 urte bitarte.
- Iturrama. Uztailak 31 – Abuztuak 4. Beteta
- Kondestablea. Abuztuak 7 – 11. Beteta
- **Zientzia eta teknologia. Asmakizunen lantegia.** 6 - 11 urte bitarte.
- Iturrama. Abuztuak 14 – 18. Beteta
- Kondestablea. Abuztuak 21 – 25. Beteta
- **Hiri-kanpamentua ingelesez. *Ghostbusters!*** 4 – 9 urte bitarte
- Mendillorri. Abuztuak 7 – 11. Beteta
- Mendillorri. Abuztuak 21 – 25. Beteta
- **Hiri-kanpamentua frantsesez. *Camp de film: sois une étoile!*** 4 – 9 urte bitarte
- Zabalgunea. Abuztuak 28 – Irailak 1. Bada leku librerik.

Iruñean, 2017ko abuztuaren 7an